| | |
|---|---|
| **Hiztegi azterketa** — *Goizuetako ezkongaiak.* G. Garate. Elkar. | Zuzen: |
| Izen-deiturak:............................................................ Maila-taldea: .................... | Nota: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. | |
| Azterketa honen balioa: ..... puntu. | |

| | |
|---|---|
| **galerazi**<br>.................................................... | «...gaizkileen zakurkeriak **galerazten** oso trebea zarena.» |
| **arro**<br>.................................................... | «Ezkerreko aldera **arroak**, amildegiak eta ibaiaren kantu goibelak.» |
| **ezordu**<br>.................................................... | «Ez zen atsegin, mutilak, **ezordu** haietan holako ibilaldia egitea.» |
| **mehartu**<br>.................................................... | «Bidea **mehartuz** eta zorua gaizkituz zihoan.» |
| **dolu**<br>.................................................... | «Kalean **doluz** jantzitako emakume zahar bati herriko ostatuez galde egin zion.» |
| **gandu**<br>.................................................... | «Bere harri landu belztuak gaueko ilunetan urtzen ziren, misteriozko **ganduetan**.» |
| **kliskaldi**<br>.................................................... | «Hiru argi **kliskaldi** egin, bazter guztiak arakatu begi artega- tsuez...» |
| **luzetsi**<br>.................................................... | «Oso **luzetsi** zuen ilunetan eta ezjakinean igarotako ordu hura.» |
| **sen**<br>.................................................... | «...han zer-edo-zer okerrik gertatu izan zitekeela ematen zion **senak**.» |
| **ziri sartze**<br>.................................................... | «Dena **ziri sartzea** besterik ez zen, nonbait.» |
| **zirt edo zart**<br>.................................................... | «**Zirt edo zart** erabaki bat hartu behar diat!» |
| **begirasun**<br>.................................................... | «Bazuen ostalariak bihotza irabazten zizun **begirasun** xalo, garbi eta ustekorra.» |
| **hortzargi**<br>.................................................... | «...ezpainetan etengabeko irriñoa zuen gizon garai, sendo, **hortzargi**, hiztun hark.» |
| **ustekor**<br>.................................................... | «Bazuen ostalariak bihotza irabazten zizun begirasun xalo, garbi eta **ustekorra**.» |
| **gizalege**<br>.................................................... | «**Gizalege** haundia erakusten zuten hitzez detektibea agurtu eta besterik gabe alde egin zuen urrats pausatu, airosoekin.» |
| **gogarako**<br>.................................................... | «Neskame gazte batek ekarri zion afaria **gogarakoa** izan zitzaion Bidarti.» |
| **isats**<br>.................................................... | «Goizean hildako txahalaren **isatsa** gisatua jango duzu...» |
| **usu**<br>.................................................... | «Aurpegi luze, fin, klasikoa zuen eta ile **usua**, airoski uhineztatua.» |
| **zirtzilkeria**<br>.................................................... | «Parte Zaharrean sartu eta zuen sabela edozein **zirtzilkeriaz** bete...» |
| **arestian**<br>.................................................... | «Nik eta **arestian** ikusi duzun neskame horrek baino lan gehiago egiten du berak bakarrik.» |

| Hiztegi azterketa — *Goizuetako ezkongaiak.* G. Garate. Elkar. | |
|---|---|
| Izen-deiturak:........................................ Maila-taldea: .................... | Zuzen: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. | |
| Azterketa honen balioa: ..... puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **jaidura** ................................ | «**Jaidura** bizikoa da, zinez.» |
| **printzel** ................................ | «...holako emakume **printzel** batek...» |
| **mendu** ................................ | «Gainera, nik uste, zure baitan ikusten dudan gauzarik ederrena ahantzi duzu: zeure **mendu** alai eta atsegina...» |
| **ohategi** ................................ | «Eginkizun hura bete eta ostalariak **ohategi** tiki, txukun polit batera lagundu zuen.» |
| **sasoi** ................................ | «Hura bai hura **sasoia**! Herriko pilotaririk onena ere ni ninduzun.» |
| **sukar ustel** ................................ | «Tartean beste arreba bat izan genuen, baina **sukar ustelak** eraman zigun, bederatzi urte zituela.» |
| **zuretik dator ezpala** ................................ | «—**Zuretik** dator **ezpala**.» |
| **bekosko** ................................ | «Denek zuten **betoskoa**, elkarrekin haserre bailiran.» |
| **haizatu** ................................ | «...bota zion alaikiro Bidartek ostalariari, haren bekokitik iluna **haizatu** nahirik.» |
| **kirio** ................................ | «Detektibearen **kirioak** zutik jarri ziren.» |
| **ipurterre** ................................ | «Bai, Galarreta zen, edanari emana balitz bezala, Tuterako piperrak baino gorriago, berritsu eta **ipurterre**...» |
| **oldoztu** ................................ | «Detektibea apurtxo batez **oldozketan** gelditu zen.» |
| **sastakai** ................................ | «Eskutitzak irekitzeko eta, erabiltzen diren **sastakai** dotore adamaskinatu bat zen.» |
| **hazpegi** ................................ | «Detektibeari, ordea, haren **hazpegi** eta jantzi guztiek baino zarrazta handiagoa egin zion (...)» |
| **joanak joan** ................................ | «**Joanak joan** eta gertatutakoa gertatu.» |
| **harraskakoa egin** ................................ | «Bazkalondoan **harraskakoa egin**, gauzak txukundu eta beti bezala agur egin nion.» |
| **minduri** ................................ | «Emakumea berriz ere malko jario eta **minduri**.» |
| **beltzuri** ................................ | «Emakumeak malkoak xukatu eta kalera irten zen etsipenezko **beltzuriarekin**.» |
| **adeitsuki** ................................ | «—esan zuen totel baina irribarretsu eta **adeitsuki** Galarretak (...)» |
| **iratxeki** ................................ | «Hizketan lotsati samar agertzen zen eta izu horrek edertasun pitin bat **iratxekitzen** zion.» |

**Hiztegi azterketa** — *Goizuetako ezkongaiak.* G. Garate. Elkar.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ...................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **irriño** ........................................ | «Galarretak **irriño** biguna nabaritu zuen anderearen begietan.» |
| **moztaka** ........................................ | «...betaurrekoak erabiltzen zituen emakume **moztaka**, potol, itsuska hari.» |
| **hilburuko** ........................................ | «—Non da **hilburuko** hori?» |
| **itzurpide** ........................................ | «...gelako iheszuloa itxi eta **itzurpiderik** gabe dagoen arratoi baten gisa.» |
| **banaiz-eznaiz** ........................................ | «Lore Arribillaga **banaiz-eznaiz** gelditu zen galdera hartaz.» |
| **mutil** ........................................ | «Holako hitz labanak esaten, **mutila** Galarreta.» |
| **aihen** ........................................ | «Astalarrosak eta huntzosto **aihenak** jostalari burnietan gora igotzen ziren...» |
| **hausnartu** ........................................ | «Detektibea kalera irten eta azken gorabeherak **hausnartzen** hasi zen.» |
| **huntzosto** ........................................ | «Astalarrosak eta **huntzosto** aihenak jostalari burnietan gora igotzen ziren...» |
| **oldozpen** ........................................ | «Beste **oldozpenik** ere bazuen burutan.» |
| **aldarte** ........................................ | «...heriotzeak eta beste istiluek ez zioten kentzen ez **aldarte** ona ez eta jateko gogoa ere.» |
| **bana-banako** ........................................ | «Bazkaria **bana-banakoa** izan zen.» |
| **bihozkiro** ........................................ | «Ostalariak, hala ere, detektibea ikusi eta batera, **bihozkiro** agurtu zuen.» |
| **gogoanbehar** ........................................ | «Denak elkarren **gogoanbeharretan** zeudela ematen zuen.» |
| **iratxo** ........................................ | «...**iratxo** zaharren aztarnak gordetzen dituzten baso, leize eta mendi tontorrak.» |
| **madura** ........................................ | «...Urumeako **madurak** ikusteko aukera egokia izan zuen.» |
| **zokomoko** ........................................ | «...bide aldeko **zokomoko**, oihan gailen eta Urumeako madurak ikusteko aukera egokia izan zuen.» |
| **maritxukeria** ........................................ | «Gizon haren **maritxukeriak** edonor nazkatzeko adinak baziren.» |
| **adur** ........................................ | «Gizonaren bizia **adurraren** eskuetan zegoela zirudien.» |
| **buru-belarri** ........................................ | «Bidartek **buru-belarri** irakurri zituen garbitasun guztiak.» |

| **Hiztegi azterketa** — *Goizuetako ezkongaiak.* G. Garate. Elkar. | |
|---|---|
| Izen-deiturak:........................................ Maila-taldea: .................... | Zuzen: |
| Testuinguruua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. | |
| Azterketa honen balioa: ..... puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **mehargune** | «Ibaiaren kantuak eta **meharguneak** aurretik entzun-ikusi egiten zituen bere irudimenean.» |
| **patar** | «Bidearen zuloek eta **patarrek** ez zioten aurren eguneko aurpegi uzkurra ipintzen.» |
| **tarrapataka** | «Eta erantzunaren zain egon gabe, gelatik irten zen **tarrapataka**.» |
| **zoli** | «Kotxearen leihotik Jonen ahots **zolia** Basakabitik zetorren haizetxo irrikorrarekin nahasi zen...» |
| **auhengarri** | «Haur jaio berria hiltzen denean bezalako iluntasun itun, hits, **auhengarriak** betetzen zuen herrixka.» |
| **hits** | «...iluntasun itun, **hits**, auhengarriak betetzen zuen herrixka.» |
| **itun** | «...iluntasun **itun**, hits, auhengarriak betetzen zuen herrixka.» |
| **ahalketu** | «Goialde guztiak zurezkoak zituen bizitegi haundia zen neska- mearena, jasandako ezbeharrez **ahalketua** eta zaharkitua, agian.» |
| **bebarru** | «**Bebarruko** atea irekita zegoen. Holako zabarkeria!» |
| **eguteran** | «Aurpegiak Leitzako bide alderantz ematen zuen, **eguteran**.» |
| **mailuko** | «**Mailukoa** danga-danga bi bider jo. Erantzunik ez.» |
| **higitu** | «Emakumea ez zen **higitu**.» |
| **inarrosi** | «Ikuspegi hark haizeak astindutako hosto bat bezala **inarrosi** zuen detektibea alderen beste.» |
| **asun** | «—Ikusten al dituzu **asunez** eginda bezalako bixika tiki hauek?» |
| **bixika** | «—Ikusten al dituzu asunez eginda bezalako **bixika** tiki hauek?» |
| **liskar** | «—Bietara gerta zitekeen. Hemen ez da **liskarraren** edo bestela gogoz kontra edan duen seinalerik.» |
| **urdailutsik** | «Holako auziak **urdailutsik** entzuteak kalte doblea egiten dik.» |
| **ilarraindu** | «Galarreta erabat **ilarraindu** zen osterako honekin eta indar haundiagoz oldartu zitzaion detektibeari.» |
| **ilenti** | «Ipurpean **ilentiak** zituela ematen zuen.» |
| **oldartu** | «Galarreta erabat ilarraindu zen osterako honekin eta indar haundiagoz **oldartu** zitzaion detektibeari.» |

| | |
|---|---|
| **Hiztegi azterketa** — *Goizuetako ezkongaiak.* G. Garate. Elkar. | Zuzen: |
| Izen-deiturak:........................................ Maila-taldea: .................. | Nota: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. | |
| Azterketa honen balioa: ..... puntu. | |

| | |
|---|---|
| **osterako**<br>.................................... | «Galarreta erabat ilarraindu zen **osterako** honekin eta indar haundiagoz oldartu zitzaion detektibeari.» |
| **sakerre**<br>.................................... | «Galarreta **sakerre** zegoen, zeinuka eta eskuei eragiten.» |
| **buruaz beste egin**<br>.................................... | «Hau aurkitu eta gero, ordea, bere **buruaz beste egin** zuela pentsatzen hasianauk.» |
| **usteak erdia ustel**<br>.................................... | «—Dionisio, **usteak sarritan erdia ustel**.» |
| **barrandan egon**<br>.................................... | «Ostalaria ezezik, katuak ere gure **barrandan egongo** direla uste diat nik.» |
| **itzain**<br>.................................... | «...haur **itzaina** bera baino ez dakit zenbat bider handiagoa den idia akulatzen.» |
| **kontakatilu**<br>.................................... | «**Kontakatilu** izateko belarri erne izan behar lehenbizi.» |
| **kuxkuxean**<br>.................................... | «—Zer ari zara hemen **kuxkuxean** guri entzuten?» |
| **xaplakatu**<br>.................................... | «Galarretak berriz eseri eta izterrak bere bi eskubarrenez **xaplakatu** egin zituen etsipenez.» |
| **gartsuki**<br>.................................... | «—Ederki, Dionisio, ederki —goraldu zuen **gartsuki** detek- tibeak—.» |
| **hizpidean egon**<br>.................................... | «—**Hizpidean** hago, Jon.» |
| **salmahai**<br>.................................... | «Emaztekiak begiak apaldu baina, eta **salmahaia** garbitzeari ekin zion.» |
| **larderiatsu**<br>.................................... | «Harrizko eraikuntza haundi **larderiatsua** duzue, arkupe eta guzti.» |
| **maxioka**<br>.................................... | «—Ez, ez nabil **maxioka**. Oso pozten naiz zu ezagutuz.» |
| **aiurri**<br>.................................... | «On Lorentzo **aiurri** onekoa zela esan nahi dut.» |
| **haztamuka**<br>.................................... | «—Jakina. Ilunpetan **haztamuka** ibili ohi gara.» |
| **mazal**<br>.................................... | «Emakume **mazala** zen. On hutsa.» |
| **nahikunde**<br>.................................... | «Berarekin sartzen ez zirenak eta bere **nahikundeetara** moldatzen zirenak onezkoetan bizi izaten ziren harekin.» |
| **haundieritzi**<br>.................................... | «Horrelakoa izan zitekeen bere neba ere, **haundieritziak** galdu izan ez balu.» |
| **onginahi**<br>.................................... | «Mirenek, diru kontuetan eta jauntxokerietan sartzen ez denez gero, guztien **onginahia** irabazia dauka.» |

**Hiztegi azterketa** — *Goizuetako ezkongaiak.* G. Garate. Elkar.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ....................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **ostalertsa** ................ | «Eta zer iruditzen zaizu Pilar, **ostalertsa**?» |
| **zarrastada** ................ | «—Zuri ere **zarrastada** handia egingo zizun On Lorentzoren herioak, ezta?» |
| **mutxurdin** ................ | «Hori ere neskazahar edo, hobe esanda, ezkongaia, oraindik ez baita horren **mutxurdin**.» |
| **gero eta gero ere** ................ | «**Gero eta gero ere** hau ez da inorentzat ezkutukirik.» |
| **isilmisilgabeko** ................ | «Gizon arrunta eta **isilmisilgabekoa** zirudien.» |
| **gaindegi** ................ | «Bidart **gaindegietan** bizkarrez bizkar gogoeta hauek erabili eta azkenean Karreto eta Artantsu baserrietan barna herrira jaitsi zen.» |
| **brastadakoan** ................ | «Detektibea ikusi eta jaiki egin zen **brastadakoan**.» |
| **zarpio** ................ | «Solairuak eta **zarpioak** lan berriaren eskua salatzen zuten non-nahi.» |
| **ediren** ................ | «—Gaixoa larrialdian **edireiten** zen, nonbait.» |
| **eleontzi** ................ | «Eta han hasi zen argibide luzeak ematen, **eleontzi**.» |
| **motots** ................ | «Ilea nahiko harro zeraman eta belarrondoetan holako **motots** biribil batean bilduta.» |
| **sotil** ................ | «Neskatxa **sotil**, apal, azal zuria zen.» |
| **uhertu** ................ | «Begiak nonbaiteko tristura ezkutuz **uhertuta** zeuzkala iruditu zitzaion Bidarti.» |
| **itzalgaitz** ................ | «Hori baino askoz astunago, ordea, jendearen artean ikusten duzun **itzalgaitza** da.» |
| **aburu** ................ | «—On puska bat nire **aburuz**.» |
| **mainontzi** ................ | «On Lorentzo haur **mainontzia** bezala tratatzen zuen.» |
| **kordokatu** ................ | «—Ez, ez, inola ere ez—, esan zuen gaisozainak **kordokatuta**, biraoa entzun izan balu bezala.» |
| **haraindiko** ................ | «...bere begien dizdira beltz eta hondargabeak areago ematen zion une hartan herioaz **haraindiko** itxura.» |
| **begiratu** ................ | «Hartara ordu edo egun luzez lanean alferrik ihardutzetik **begiratuko** nauzue.» |
| **nare** ................ | «—Bai, bai, ulertzen zaituztet, andereñook— esan zuen **nare**-nare detektibeak...» |

**Hiztegi azterketa** — *Goizuetako ezkongaiak.* G. Garate. Elkar.

Izen-deiturak:................................................................ Maila-taldea: ..................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **zertzelada** ........................ | «—Ea, ea, konta iezazkidak **zertzelada** guztiak.» |
| **amoltsu** ........................ | «Bestela, benetan, **amoltsu** eta oso jendartekoa da.» |
| **punttalakurlo** ........................ | «Rodriguez oso gizon zehatz eta **punttalakurloa** zen.» |
| **sits eta bits** ........................ | «Izebak gerturik zuen bazkari ederra **sits eta bits** jan ondoren, berriz ere Goizuetara.» |
| **arra** ........................ | «...galdetu zuen ostalariak, bi **arrako** belarriak luzatuz.» |
| **marrantatu** ........................ | «...bat-batean zintzurra **marrantatu** egin izan balitzaio bezala—.» |
| **partzuer** ........................ | «—Oso poz haundia izango nuke, ni ere bilera horretan **partzuer** banintz...» |
| **esku-lilurakari** ........................ | «—Ez pentsa, gero, nik gauzak eta herioen hariak **esku- lilurakariek** bezala neure jakako sakeletik ateratzen ditudanik.» |
| **berantetsi** ........................ | «Izan ere, diru premiatan dagoenak oso **berantetsi** ohi du berezko herioa.» |
| **handitsu** ........................ | «Ipurdian **handitsua** iraizteko burdina goria sartu izan baliote, ez zukeen On Landerrek jauzi biziagorik egingo.» |
| **berriki** ........................ | «**Berriki** ahizpa bakarra hil zaizu eta zorrak besterik ez dizu utzi...» |
| **elebide** ........................ | «—Bai, zeuk ez badidazu **elebidea** galerazten, askoz lehenago amaituko dut, Galarreta maitea.» |
| **lauso** ........................ | «Alkatea begi **lausoekin** lurrera begira gelditu zen.» |
| **abagune** ........................ | «...zuek denok On Lorentzo garbitzeko **abagune** ezin hobea zenutela ikusi nuen.» |
| **mugonez** ........................ | «**Mugonez** jokatu beharra zegoen, inoren susmo txarrik eraiki gabe.» |
| **estakuru** ........................ | «Jakina, **estakuru** argala da hau, ordu bete nahikoa baitzuten On Lorentzo garbitu eta berriz ere Donostiara itzultzeko.» |
| **asperkunde** ........................ | «—**Asperkundeagatik**? —galdetu zuen ostalariak harrituta.» |
| **galtzarpe** ........................ | «Nebak **galtzarpetik** maitekiro heldu eta biak atera hurbildu ziren.» |
| **mintxuri** ........................ | «Bat-batean, ordea, **mintxuriak** jota, arreba amildu egin zen konorterik gabe.» |
| **hartukizun** ........................ | «Zer **hartukizun** du On Landerrek herio honekin?» |